



XII. KIROL ARGAZKIEN LEHIAKETA - ELGOIBAR 2017

ANTOLATZAILEA: ELGOIBARKO UDALA (Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapeneko Saila eta Udal Kirol Patronatua), Ongarri argazkilari elkartearekin lankidetzan.

PARTEHARTZAILEAK: Argazki lehiaketa honetan nahi duten zaletu guztiek har dezakete parte, bai profesionalek, bai amateurrek.

GAIA: Kirolaren arlo guztiak.

MODALITATEA: Paperean egindako argazkiak, koloretan nahiz zuri beltzean. Irudiak tratatzeko edozein prozedura edo teknika onartuko da. Paperean aurkezten diren argazkien euskarria 30 x 40 zentimetrokoa izango da ezinbestean, eta kartulina finez eginikoa. Euskarri horren barruko argazki-paperearen gehienezko neurria 24 x 30 zentimetrokoa izango da.

AURKEZTEKO EPEA: Uztailak 17

LANAK: Partaide bakoitzak, gehienez ere, 4 argazki aurkeztu ahal izango ditu. Lanek originalak izan beharko dute. Ezin dira aurkeztu beste lehiaketa batean saritutako lanak.

ARGAZKIEN IDENTIFIKAZIOA: Argazki bakoitzaren atzean izenburua edo leloa eta zein mailalara aurkezten den jarriko da (nerabeak, gazteak edo orokorra). Argazki bakoitzarekin batera, kartazal bat aurkeztuko da argazkiaren izenburu edo lelo bera duena. Kartazal horren barruan lehiakidearen datuak jasoko dira; izen-abizenak, NANA, adina, helbide osoa, e-maila, telefono zenbakia eta bankuko kontuaren zenbakia (24 digituak, IBAN eta guzti). Datu hauek nahitaezkoak izango dira saria jaso ahal izateko. Antolatzaileek ez dute erantzukizunik izango, sarituek, sariak eman ostean, harremanetan jartzeko behar diren datuak ematen ez badituzte. Hortaz, argazkilari sariduna antolatzaileekin harremanetan jartzen ez bada, antolatzaileek bidezkoa den erabakia hartuko dute.

HELBIDEA:

Olaizaga kiroldegia

32 posta kutxatila

San Roke kalea, 20870 Elgoibar

MAILAK ETA SARIAK

1) HERRITARRENTZAKO SARIA: Elgoibarren bizi direnek aurkeztutako argazkirik onena sarituko da.

Saria: 200 €



2) **NERABEENTZKO SARIA**: 13-17 urte bitarteko nerabeak, Elgoibarren nahiz kanpokoan bizi direnak.

1. saria: 150 €

2. saria: 100 €

3) **GAZTEENTZAKO SARIA**: 18- 30 urte bitarteko gazteak, Elgoibarren nahiz kanpokoan bizi direnak.

1. saria: 300 €

2. saria: 200 €

4) **SARI OROKORRA**: 30 urtetik gorakoak, Elgoibarren nahiz kanpoan bizi direnak.

1. saria: 300 €

2. saria: 200 €

Oharra: Saridunek saria jasotzera etorri beharko dute, eta ezinezkoa bazaie, ordezkariaren batek jaso beharko du. Sari banaketara, ez bata, ez bestea bertaratzen ez badira, saria baliogabetu egingo da.

EPAIMAHAIA: Epaimahaia uztailaren 20an bilduko da, eta honela osatuta egongo da: Elgoibarko Udaleko lau ordezkari, Ongarri argazkilari elkarteko ordezkari bat eta kirolari bat. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da.

SARI BANAKETA: Abuztuaren 22an, 19:30ean, Kultur Etxean.

ERAKUSKETA: Epaimahaiak aukeratzen dituen argazkiak jendaurrean erakutsiko dira, abuztuaren 21tik irailaren 2ra bitartean, Kultur Etxean (Txiki egunean (**abuztuak 25**) eta igandean ITXITA).

Ordutegia: 18:30 – 20:30

LANAK JASOTZEKO EPEA: Argazki sarituak antolatzaileen esku geratuko dira, eta horiek izango dira argazkiak argitaratzeko eskubidea izango dutenak, beti ere, egilearen izena aipatuta. Saritu gabeko lanak jasotzeko epea irailaren 11tik 23ra izango da. Lanak Olaizaga kiroldegian jaso ahal izango dira. Epe horren barruan jasotzen ez diren lanak antolatzaileen esku geratuko dira.

ARGAZKIAK GALTZEA EDO LAPURTZEA: Antolatzaileek hitzematzen dute argazkiak ondo zainduko dituztela, baina ez da beraien ardura izango bidean edo eta erakusketa egiten den bitartean galtzen edo hondatzen badira, ezta lapurtzen badituzte ere. Egileek aseguruaren edo lanen balioaren ardura izango dute.

ONARRIAK ONARTZEA: Lehiaketa honetan parte hartzeko, oinarri hauek guztiak onartu beharko dira.